



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



NAHIKO! 3-4

LANBIDEAK

4

UNITATE
DIDAKTIKOA

FAMILIAREN KOADERNOA 12

Familia agurgarria:

Ikasturte honetan, nesken eta mutilen Giza Eskubideetan oinarritutako **Berdintasunaren Okaren** osagarri ezberdinak ezagutzen jarraituko dugu. Dakizueenez, Berdintasunaren Okak emakumeen nahiz gizonezkoen bizitza ibilbidea irudikatzen du, pertsona bakoitza autonomoa izateko eta, nork bere ahalmenen arabera, bizitzaren arlo guztietan pertsona garatua izateko.

Aurreko ikasturtean Berdintasunaren Okaren osagarri batzuk landu genituen: **Zainketa eta aniztasuna**. Laugarren unitate didaktikoak berdintasunaren oka berdearen beste derrigorrezko osagarri bat lantzen du: lanbidea, enplegua, ordaintzen den lana.

Gure gizartean, **lanbidea** diru-autonomia lortzeko bidea da eta, horren ondorioz, autonomia pertsonala lortzeko bidea. Horregatik da, hain zuzen, oinarritzko giza eskubideetako bat.

Berdintasunaren Okak lan guztiak beharrezkoak direla irakasten du, bai ordainduak bai ordaindu gabeak (zainketaren gehienak esaterako), guztiak ezinbestekoak dira gure ongizate indibiduala eta komunarentzat. Eta, era berean, emakumeek nahiz gizonek, norberaren muga pertsonalak salbu, edozein lanbide izan eta edozein lana egiteko beharrezko dena **ikas dezaketela** erakusten du.

Gure gizartean, enplegua, ordaindutako lana, **ezinbestekoa** da gure seme-alabek nahi duten bezala izan eta bizitzeko, eta euren arteko bikote eta familia harremanak berdintasunean, giza eskubideetan eta tratu onetan oinarritu ahal izateko.

IZENA

1

LANBIDEEN ZUHAITZ FAMILIARRA

Eskuinaldean zure arbasoen zuhaitzaren zati bat jaso dugu. Betetzeko etxeko helduen laguntza beharko duzu.

1 zenbakiko maila zure birramonak, birraitonak eta haien anai-arrebena da.

2 zenbakikoa, zure amonak, aitonak eta euren anai-arrebena.

3 zenbakikoa zure ama, aita, izebak, osabak eta zurekin bizi diren helduena.

4 zenbakikoa zu zara.

Aukera itzazue bi emakume eta bi gizon maila bakoitzerako, itsatsi itzazue euren argazkiak (edo argazkien fotokopiak) eta idatzi ezazue bakoitzaren izena eta lanbidea (edo lanbideak).

LABURPENA

Nere familiako emakumeen lanbideak	Nere familiako gizonen lanbideak
Zergatik aukeratu zituzten lanbideak?	Zergatik aukeratu zituzten lanbideak?
Galdetu lanbide horiek pertsonen bizitzan izan zituzten ondorioengatik	

1

izena:

lanbidea:

izena:

lanbidea:

izena:

lanbidea:

izena:

lanbidea:

1

2

izena:

lanbidea:

izena:

lanbidea:

izena:

lanbidea:

izena:

lanbidea:

3

4

izena:

lanbidea:

HITZ EGIN ETXEKOEKIN ETA BETE: ZERK BALDINTZATU DEZAKE ZURE LANBIDEA?

Familiakoen lanbideak.	<input type="checkbox"/>	Nik ikasten dudana.	<input type="checkbox"/>
Bizi naizen herria.	<input type="checkbox"/>	Nere lagunen lanbideak.	<input type="checkbox"/>
Nik egin nahi dudana.	<input type="checkbox"/>	Nere ahalmenak.	<input type="checkbox"/>
Neska edo mutila izatea.	<input type="checkbox"/>	Nere formakuntza.	<input type="checkbox"/>
Familiakoen iritzia.	<input type="checkbox"/>	Zortea, egoera...	<input type="checkbox"/>

Puntuatu ezazue bakoitza: 0tik (bat ere ez) 3ra (asko)

2

ETXEKOEN LANBIDE DESIATUAK

Galdetu etxekoei zer lanbideak dituzten gustukoen eta taula hau bete ezazue, zergatiak eta lanbide hori egiteko behar diren gaitasunak idatziz.

IZENA	LANBIDEAK	ZERGATIK?	BEHARREZKO GAITASUNAK
ADIBIDEA Eduarne, nere ama.	Kamioilaria. Arkitektoa	Bidaiatzea, tokiak ikustea eta eraikuntza bitxiak gustatzen zaizkio. Soldata ona.	Gidatzea eta mekanika jakitea. Arkitektura ikastea.

ETA NERETZAT ZER LANBIDE AURREIKUSTEN DUTE PERTSONA HORIEK?

IZENA	LANBIDEAK	ZERGATIK?	GAITASUNAK